

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 2011ko Sortu OTEB sariak banatu dizkie proiektu teknologikoei

"Ttlabel" izeneko proiektuak unibertsitateen eta zentro teknologikoen proiektu onenaren saria lortu du eta "Midere" eta "Biomoléculas" proiektuek ekimen pribatuko proiektu onenarena ex aequo

Jueves, 10 de noviembre de 2011

Nafarroako Gobernuak [2011ko Sortu OTEB sariak](#) eman dizkie gaur goizean oinarri teknologikoko negozioak garatzeko aukera duten proiektuei. Lehiaketa Nafarroako Plan Teknologikoaren barruan egin da eta bi kategoria ditu: unibertsitate eta zentro teknologikoetako proiektuak eta enpresek edo partikularrek sustaturikoak. Bi kategorietan saria 5.000 eurokoa da.



2011ko Sortu OTEB sarien irabazleak, Enpresa eta Berrikuntza zuzendari nagusiarekin eta CEINen zuzendari kudeatzailearekin batera

Lehenengo kategorian, aurtan "Ttlabel" proiektua saritu dute. Paula Aldazek sustatu du eta [Nafarroako Unibertsitate Publikoak](#) kudeatu, eta nekazaritzako elikagaien eta botiken ekoizpenean hotz-katea monitorizatzeko denbora-tenperatura etiketak garatzean datz.

Ekimen pribatuko proiektuen kategorian, saria "Midere" eta "Biomoléculas" proiektuek jaso dute ex aequo. Lehena [Helphone](#) enpresak bultzatu du eta Interneteko erreputazioa monitorizatzeko software plataforma bat du oinarri.

"Biomoléculas" proiektua Ana Escribano ikertzaileak bultzatu du defentsak, polinizatzaileak eta flora laguntzailea eragiten duten eta botanika jatorri duten biomolekulak ekoizteko.

Ekimen pribatuko proiektuen kategoria horretan, sariaren epaimahaiak Tuterako [Applied Foods](#) enpresaren aipamen berezia egin du. Enpresak elikagaien bioitsasgarriak ekoiztu eta banatzen ditu.

Sortu OTEB Sarien hirugarren ediziora hamabi proiektu aurkeztu ziren. Sariak Jorge San Miguel Nafarroako Gobernuko Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak eta Pablo Romera [Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa](#) (CEIN) sozietate publikoko zuzendari kudeatzaileak eman dituzte.

Sariak banatzeko ekitaldi berean, estatuko OTEB marka eman zaie 2011n oinarri teknologikoko enpresa berritzaile (OTEB) izatearen ziurtagiria lortu duten bi enpresei: [Bionanoplus](#) enpresak nanopartikula eta mikropartikula polimerikoak garatzen ditu, eta [Enonatura](#) enpresak ardogintzaren sektoreari zerbitzu teknikoa eta laborategiko zerbitzua eskaintzen dizkio.

[Espainiako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarren Elkarte Nazionalak \(ANCES\)](#) sari hori estatu mailan nabarmenak diren OTEBei ematen die, besteak beste, puntako teknologietan dutelako oinarria, produktu edo zerbitzu berritzaileak eskaintzen dituztelako, denboran zehar I+G+B iraunkorra eta hazteko aukera handia daukatelako eta langile kualifikatuak izateagatik.

Gaur egun estatuko 200 enpresak daukate OTEB zigilua, eta horietatik 15 nafarrak dira. Dagoeneko aipatu direnez gain, Idifarma, Ansabere Surgical, Barbolight, Cromasa Identificación Electrónica, Digna Biotech, Open Bravo, Iden Biotechnology, 3P Biopharmaceutical, Simax, Ojer Pharma, Tafco Metawireless, Proretina eta Orbital Aerospace enpresek daukate marka.